

ANNAPURNA

ELKARTASUNA

Elkartasuna

Elkartasuna Mendizaletasunaren arau etiko ezinbestekoa dugu. Etxeko mendietan nahiz urruneko gailurretan, elkartasuna zor diogu mendian ondoan dagoenari. Eta 7000 metroetan dagoen mendizalari zor zaion elkartasuna are haundiago.

Lehenik elkartasuna zure taldekideengandik espero duzu. Mendigailur haundi baterako doan bidea luzea da, egunak behar dira BKra itzultzeko. Bide horretan lagunekin konpartitzen duzu gabak, sukaldean berotutako sopak, beldurra, gogoa, gailur eguneko zalantza eta esperantzaz betetako egunsentia. Hurbileko lagun horiengandik espero du Elkartasuna mendizaleak. Eta elkartasuna uneoro azaldu beharko litzateke. Igoeran eta jeitsieran. Gorakoan ur tragat bat eskeiniz, atzean gelditzen baldin bada zai gelditu, erritmoan lagundu,...

Gailurrean hasten da igoeraren unerik arriskutsuena: jeitsiera. Are gehiago indarrez juxtu dabilenentzat. Une horretan Alpinistak badaki zer egin pattal dabilen lagunari elkartasuna luzatzeko: lagunaren ondoan izango da, eguraldi txarrean bidea erakutsiko dio, soberan duen indarra luzatu, kanpalekuraino batera jeitsiko da. Etengabe luzatuko dio elkartasuna, keinu txiki, bainan eragin haundikoa.

Aurrekoa ez baduzu egiten nola eska diezaiokezu Elkartasuna BK urruti batean daudenei 1500 m beherago?

Annapurna urrunetik komunikabideei eskatutako elkartasun mediatikoek ez dute inolako aukerarik inori laguntzeko.

Segurtasuna

Mendian toki zailtan erabiltzen dugu soka mendizaleok. Sokak lotzen gaitu, mendiari, lagunari. Erori ezkerre, sokalagunak sokarekin eutsi egingo gaitu. Bainan soka zerbait fisikoa soilik ez da, fisikotik haratago doan lotura ematen du, *ikustenezden* soka bat sortzen da lagunaren artean.

Patagoniatik itzultzerakoan non Txema Egiazabalerekin Torre, Fitz Roy eta Standhart eskalatu zuten horrela mintzo zen Xabier Ansa: "Bi gorputz buru bakarra ginen, soka baino zerbait sendoagoa lotzen gintuen".

Ba dira mendiak non sokarik ez dugu behar, teknikoki zailak ez direlako. Hauxe gertatzen da hainbat 6000, 7000 edo 8000 gutxi batzutan. Mendi Horietan soka ikusezin horrek lotzen gaitu. Lotura horretan aurkitzen du ahulenak bere taldekideen indarra mendian mendizaleok dugun helburu bakarra lortu ahal izateko: BKra onik itzultzea.

Gaur egun Himalaian dabilzaten gutxi batzuk oker bat zabaltzen ari dira: gohien norberak bere burua zaindu behar duela, sokaikusezina eta indartsu hori deuseztatuz. Lehenengoak gezurra da, bigarrena teknikoki oker haundi bat. Sokaikusezina erabili izango balute ez ginen Annapurnataz hainbeste hitz egiten izango. Sokakidea sakratua da Alpinismoan, nahiz soka fisikoa hala ikusezina izan.

MENDIGOIZALETASUNA KOMUNIKABIDEETAN

Mendizaletasuna jarduera intimo bat da. Gure baitan gertatzen da. Gaur egun hainbat espedizio mediatikoen etengabeko erretransmisio Alpinismoaren espirituaren kontra dago. Ideiak sailkatuz arituko naiz.

Segurtasuna

Segurtasuna Alpinismoaren lehendabiziko balioa da. Mark Twigthe horrela definitzen du alpinista: "Goimendira joaten den pertsona eta bere senideek eta lagunek konfiantza osoa dute etxera onik itzuliko dena".

Espedizioen erretransmisioa itogarriak, harrotu dezake mendizalea, harrotasunak burua nahastu, presio handia sortu, eta goimendian buru nahasiak arriskutsuak dira.

RealityShow

Alpinismoak ba du hainbat elemento erakargarriak komunikabideentzat: arriskua, herioa, natura. Erakargarriak audientzia zabalak eskura ahal izateko.

Komunikabideak ez dute Alpinismoa ulertzen ez ta ere ulertu nahi. Saiatzen dira Alpinismoa makurtzen beraien interesetara. Alpinismoa baldartzen abenturazale faltsuz beteriko RealityShow batean bihurtuz.

Saio beldurgarri horretan mendian dabilzaten pertsonak aurkitu dute laguntzaile. Ospe eta diruaren truk.

Poesia

Poesia gure jardueraren oinarriko ezaugarria dugu. Mendian gauza ederrak sentitzen dugu. Beldurra, indarra, nahigabea, gogoa, irriparra, negarra. Arriskuz beteriko Natura eder batean gertatu ere. Poesia argia, mikatza, gordina, krudela, kristalezkoa.

Guzti hori mendizaleok gordetzen dugu, ausnartu, gero kontatu. Balio haundikoak baitira, eta gizarteari maite dugu helarazi. Poesia mendizaletasunaren arima da.

Ez ditut ikusten Komunikabideak arima hori ulertu nahian, baizik eta bere begia gure boltsikotan jarrita.



Wolfgang Beyer argazkia

■ Annapurna

EMAKUMEA MENDIAN

Pasaban eta Oh Eun-Sun arteko sortu den lehia ez du Himalaiazaletasunarekin ezer ikusirik. Mendizaletasuna ez da 2 pertsonen arteko lehia. Alpinismoan pertsona Mendiarekin harremanetan jartzen da, burua altxatu eta mendia ikusten du. Eta eguzkia eta itzala biltzen diren lerro dotore hartan oharitzen da. Eta pensatzen du: ederra izango da handik igotzea. Eta bidean jartzerakoan haizearekin, bakardadearekin, nekearekin, elurrarekin aurkitzen da. Harreman horretan Alpinistak bere arte guztia erabiltzen du gailurreraino bide hura zabaltzeko.

Pasaban eta Ohren arteko lehia hau, ez du ezer ikusirik aurreko lerroetan aipatutakoarekin. Lehia ekonomikoa, politikoa, pertsonala, tehebistakoa. Lehia zakar horretan murgildurik Alpinismoaren bi arau kalteturik irtetzen dira: Garbitasuna ta Segurtasuna.

Pasabaneke oker haundia egin du Oh Eun-Sun Kanchenjungara ez zela igo esaterakoan.

1. Pasaban ez zegoen gailurrean Oh Eun-Sun gailurrean zebilenean.
2. Oh-ren sherpek esan omen dute Kangchen gailurrera ez zela heldu.

Sherpek sokak jarri, goratabehera zama garraiatu, galdu zaizun lagunaren erreskatara joan, afaria prestatu, eta orain beraien bizkarrean beste zama bat, nor igo da eta nor ez egiaztatzea? Gehiegizko lehia horren gehiegikeria.

Urte luzetan mendizaleok hutsune bat sentitu dugu mendian: ingururra begiratu eta emakumezkorik ez aldamenean. Hara non eta duela urte asko ez agertu zaizkigu, eta ze pozik gizasemeke gure neskalaguna Anetotik eskiatzen dotore jeisten ikusterakoan, Mt Blancos Cosmicosetik gora egiten, Eigherreko Mitteleggi ertzatik 2 neskatil arin mogitzen!!

Merezi zuten gehiegikeri hau Mendizaletasunara doala gutxi heldutako emakume eder horiek? Ez noski.

ALPINISMO MEDIATIKOAREN EREDUA

Annapurnan ikusi diren alpinismo ereduak Alpinismoaren irudiari eta funtsari egiten diete kalte. Euskalherrian alpinista gazte, heldu eta urtetan sartutakoak asko gara. Alpinismo duhin eta dotorean, ezagunak batzuk, ez hain ezagunak besteak, batere ezagunak asko. Ni hauen izenean ari naiz, berain jardueratuz hitz egin nahi dut: Betiko arauak errespetatuz, ezerean truk mendian, bere artea etengabe hobetzen, ondorioz gure mendizaletasuna aberasten. Hauek ez dabilzate *Ezinezkoaren Ertzean*, hauek *Deusgaiaren Bilatzaileok* dira.

Zer ematen diote mendigoizale horiei sasialpinista mediatikoek? Batek goimendian araurik ez dagoela? Jai duela sokadiskideak? Zenbat Calafat ezagutu beharko dugu? Auzokoak baino mendi gailur gehiago pilatzea besteak? Nola eta Nondik igotzea garrantzirik ez duela?

Sormena izan da Alpinismoa aurrera eramanean duen bertuterik haundiena, eta eredu hauek Sormenarik zero.

Herioa mendian

Mendizalea mendian hilik gertatzen denean sarri entzun behar izaten dugu usain txarreko hitzok: "Maite zuen jardueran hil egin da", "Non baino hobeto han maiz txuriz estalirik?"

Orain ere, Annapurna ondoren aditu dugu horrelakorik: *Tolo hil da edozein alpinista hil nahiko zuen tokian*. Pentsamolde oker honi erantzuteko Angel Landari lapurtuko diot hitzok: *Bizi nahi zuen tokian hil da Tolo*. Porrota ez da Gailurrik ez lortzea, porrota mendian hilik gelditzea da.

Ez 14, ezta ere 28, nik 14000, 28000 mendigailur opa dizkizuet. Biderkatu zenbaki horiek 30000 garen mendizaleokin Euskalherrian: zenbait emozioa, poesia, keinu ederrak, zenbait pauso, ñapa, giro, zenbait neke, atsedean, zenbait etxeratze alaiak.

Felipe Uriarte

Bibliografía

Extrem Alpinism, Mark Twight & James Martin.
Yosemite, Alex Huber & Heinz Zak.
Montagnes de verre, Dino Buzzati.